

Azaroaren 25a, Emakumeenganako biolentziaren aurkako nazioarteko eguna


Hamar emakume gaztetik hiru beraien herritik edo auzotik gauez ibiltzearen beldur dira

Emakumeenganako biolentziaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) "Euskadiko gazteak" izeneko bildumari dagozkion ikerketa guztietan sartzen duen galdera bat aztertu du: herritik edo auzotik gauez ibiltzearen beldurra, hain zuzen ere. Galdera hau gizonak eta emakumeak segurtasunari edo segurtasun ezari buruz dituzten ulertze era ezberdinak ezagutzeko baliogarria da.


Urteetan hiri-segurtasuna hiritar guztiek modu berdinean ulertzen zutela pentsatu izan da. Baina azken hamarkadetan iritzi hori aldatu egin da eta agerian geratu da gizonak eta emakumeak bizipen oso ezberdinak dituztela gai honen inguruan. Izan ere, hiri-indarkeria, hainbat aurpegi dituena (eraso sexualak, ahozko erasoak, lapurketak, beldurrarazteak...), emakume askoren beldurra da, haien identitatea edozein izanda ere (adina, etnia, joera sexuala, trebetasun fisikoak, etab.).

2008ko datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko emakume gazteen %29 euren herritik edo auzotik gauez ibiltzearen beldur dira. 2000 eta 2004 urteetan beldur ziren emakumeen portzentajeak %20 baino handiagoak ziren ere, %26 eta %22, hurrenez hurren.

Aitzitik, beldur diren gizonen ehunekoak %10en azpitik daude aztertutako hiru urteetan.



2008ko datuak (bildumaren azkenekoak) zehatzago aztertzen baditugu ikus dezakegu 20 urtetik beherako emakumeak direla beldurrik handiena dutenak (%36).



Hiriburuetan bizi diren neska gazteek herri ertainetan bizi direnek baino beldur handiagoa sentitzen dute, eta azken horiek, herri txikietan bizi direnek baino handiagoa.

